





NI NAIZ ZALDIA

	 10 min
MATERIALA - Kartulinak animalien irudi eta izenekin.	

AZALPENA

Haur bakoitzari animalia izen bat emango diogu. Aldi berean, izen horiek kartulinetan idatzi eta zorro batean sartzen dira.

Haurrak gelaren alde batean ipiniko dira eta bere "izena" zorrotik atera eta irakurtzen denean, gelaren beste aldera pasa beharko dute abere hori irudikatzeraz.

Irakurlea: ZALDIA!

Haurra: NI NAIZ ZALDIA, iiiiiijjjiiii!!!!

Ogibideak ere erabil ditzakegu jolas honetarako.

Irakurlea: SUKALDARIA!

Haurra: NI NAIZ SUKALDARIA!

NIK BAZKARIAK PRESTATZEN DITUT!



ALDAERAK

Jolasa zaildu daiteke esaerak erabiliz, eta hauen barruan, ikasleak beren animalien izena topatu beharko dute.

- Apirila, biribila, **txerria**, urdandegian hotzak hila.
- Ganorabakoek etxean goizeko **oilo** salda arratsean.
- **Akerrak** adarrak okerrak ditu.



NIK EZ DUT MOKORIK

	 15 min
MATERIALA	
<ul style="list-style-type: none">- Zorro bat- Gorputz atal batzuen irudiak	

AZALPENA

Zorro batean gorputz atal batzuen irudiak sartzen dira. Batzuk pertsonenak izango dira, besteak abereenak. Ikasleak irudiak atera eta gorputz atal hori daukaten edo ez esango dute.

- Nik ez dut isatsik.
- Nik ez dut mokorik
- Sudurra badut
- Begiak baditut

Pertsonen kasua hartu beharrian animalia batena hartu daiteke:

- Astoak badu muturra
- Astoak ez du adarrik

Baina batzuetan zehaztu beharrian ere aurkituko gara:



- Katuak hankak, baditu, baina honelakoak ez.

ALDAERAK

Irudi berdinekin bingo moduko txartelak prestatuko ditugu eta bakoitzari bat banatuko zaie. Gero irudiak ateratzen diren heinean, banaka esan beharko dute ateratako irudia beraien txarteletan dauden edo ez.



ZAPATA HAU ZUREA DA?

	 10 min
MATERIALA	
- Haurren zapatak.	

AZALPENA

Zaku batean haur bakoitzaren zapata bana sartzen da. Gero haurrek, banan-banan, zapatatxo bat aterako dute eta beste bati eman:

- Hau, Edurnerentzat.
- Hau, Koldorentzat.

Berea ez den zapata edukiko du orduan haurrak segur aski. Beraz, jabea bilatu beharko du.

- Zapata hau zurea da?
- Ez, ez da nirea.

ALDAERAK

Zapatekin egiten den bezalaxe, beste edozein gauzarekin egin daiteke.